

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

2019-2023 agintaldia

3. batzarraren AKTA

2022ko martxoaren 2an – 17:00 h

BERTARATUAK

Juan Mari Aburto Rique (Bilboko alkatea, presidentea)
Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia, presidenteordea)
Xabier Otxandiano Martínez (Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enpleguko zinegotzia)
Marta Ajuria Arribas (Ogasuneko zinegotzia)
Nora Abete García (PSE-PSOE Udal taldea)
Ana Viñals Blanco (Elkarrekin Podemos Udal taldea)
Mikel Bilbao Elejarcegui (PP udal taldea)
Lierni Lizaso Urrutia (Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendaria)
Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria)
Jokin Gorozika Bidaurrezaga (Labayru Fundazioko ordezkaria)
Iñaki Larrañaga Juaristi (Zenbat gara elkarteko ordezkaria)
Jon Maguregi (Bilboko euskaltegiako ordezkaria)
Olatz Elgea Lopez Cano (Bilbao Dendak elkarteko ordezkaria)
Ainara Aretxabaleta (Uztarri Kultur Elkarteko ordezkaria)
Mari Jose Arrieta Sagarna (Euskarako zuzendariordea)

BERTARATU EZ DIRENAK

Gonzalo Olabarria Villota (Kultura eta Gobernantzako zinegotzia)
Asier Gonzalez Soreasu (EH-Bildu Udal taldea)
Alaitz Oribe Torrontegi (EAJ-PBNV Udal taldea)
Iker Goñi Antuñano (Athletic Club-eko ordezkaria)
Lutxo Egia del Río (Idazlea eta kultura-sustatzailea)
Goizalde Landabaso Etcheverry (Kazetaria)
Miren Agur Meabe (Idazlea)
Jon Simón Gartzia Legarreta (Eusko Jaurilaritza - Hezkuntza Saila)
Andrés Urrutia Badiola (Euskaltzainburua)

IDAZKARITZA TEKNIKOA

Ziortza Artabe (Labayru Fundazioa)

GONBIDATUAK

Bilboko Abusu Ikastolari egokitu zaio aurtengo Ibilaldia antolatzea; eta horren berri ematera etorri dira:

- Zunbeltz Fullaondo, Abusu Ikastolako zuzendaria.
- Zaloa Aldatz, Abusu Ikastolako gerentea.
- Garikoitz Meabe, Ibilaldia Elkarteko kidea.

Juan Mari Aburto presidenteak ongietorria eman die bertaratuei, eta esan du Covid-19ak eragindako osasun-krisia apaltzen ari dela eta hurrengo batzarrean batzordekide guztiak aretoan bertan ikusi gurako lituzkeela. Ondoren, Lierni Lizaso Urrutia Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendari berria aurkeztu du.

Bai bertaratutakoei, bai linean aritu direnei bilerarako materiala banatu zaie. Honako dokumentuak dira:

- Gai-zerrenda
- Batzordeak 2020ko abenduaren 10ean egin zuen bileraren akta
- *Ibilaldia 2022* aurkezpena
- *Hizkuntza Ofiziala Erabiltzeko Irizpideak* dokumentua
- *Euskara sustatzeko ekintza plana Bilbon: ebaluazio-proposamena* dokumentua

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILERAREN (2020-12-10) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren akta onartu egin da.

2.- **IBILALDIA 2022, AURKEZPENA**

Aholku Batzordeko presidenteak gonbidatuei hitza eman die Bilbon ospatuko den Ibilaldia jaiari buruzko xehetasunak azaltzeko.

Ibilaldia Bizkaiko ikastolen jaia da. Edizio bakoitzean ikastola batek antolatzen du eta Bilboko Abusu Ikastolari egokitu zaio aurtengoa antolatzea. Maiatzaren 29an ospatuko da.

Bilboko Udaleko Aholku Batzordeak Abusu Ikastolako zuzendari Zunbeltz Fullaondo eta gerente Zaloa Aldatz, eta Ibilaldia Elkarteko Garikoitz Meabe gonbidatu ditu, jaiaren aurkezpena egiteko.

Ibilaldiari buruzko zertzelada batzuk eman dituzte. Hasteko, Zaloak eskerrak eman ditu Aholku Batzordearen batzarrean Ibilaldia aurkezten uzteagatik; eta jarraian, Abusu ikastolari buruzko informazioa eman du: non kokatuta dagoen, zer motatako ikastetxea den, zenbat ikasle eta irakasle dituen...

Ondoren, Zunbeltzek aurtengo Ibilaldiaren **leloaren oinarrian** zer dagoen azaldu du. Logoak **3 errotarri** adierazten ditu, ikastola errota izandako lekuan dagoelako.

- **Erro**: sustraiak zaintzen dabiltzalako.
- **Harri**: harria bezain gogor jardun nahi dutelako.
- **Har**: harrera ikastola izan nahi dutelako.



Zunbeltz Fullaondoren esanetan, honako hauek dira aurtengo Ibilaldiaren helburuak:

- **Mundura eta munduko kulturei begira** dagoen eguna izatea.
- **Izaera herritarra** duen eta **gizarte-eragileekin lankidetzan** burutuko den jaia izatea.
- Euskaraz bizi den **ororentzako jaia** izatea. Ibilaldia Bizkaiko ikastolen jaia da, baina haratago eraman nahi dute.
- **Hezkuntza-sisteman ekimen berriak** sustatu nahi dituen jaia izatea.
- **Administrazioarekin elkarlana** bideratuz egingo den jaia izatea.
- **Gaztetxo eta nerabeen jarrera parte-hartzailea** eta **hezitzailea** bultzatzeko jaia izatea.

Azken helburu horren harira, alkateak adierazi du Bilboko Udaleko Gazteriaren arlorako oso puntu inportantea dela, eta Udala, behar izanez gero, laguntzeko prest dagoela. Horrez gain, gaia landu ostean zer emaitza lortzen diren jakitea gustatuko litzaiokeela esan die; izan ere, Udalak gai honen inguruan hainbat prozesu ditu abian.

Aurreko helburuei honako hauek gehitu dizkio Zunbeltzek:

- **Euskara eta beronen sustapena** bultzatzea.
- **Parekidetasuna/Hezkidetzeta**.
- Sexu eta generoari lotutako **rolak gainditzea**.
- **Jasangarritasuna bermatzea** antolatzen ditugun ekintza guztietan.

Ondoren, berriro hartu du hitza Zaloak, eta **Ibilaldi Kulturalaren** barruan zer ekintza burutu diren eta egingo diren azaldu du. Eta azkenik, Garikoitzek hartu du hitza. **Ibilbideari eta antolakuntzari buruzko informazioa** eman du.

Aurkezpenaren harira, Elkarrekin Podemos Udal Taldeko Ana Viñalsek adierazi du asko gustatu zaiola antolatzaileei entzutea Ibilaldia prozesu parte-hartzailea izatea nahi dutela; baita jaia guztiona eta irekia izateko erakutsi duten asmoa ere. Hori lortzeko, galdetu die ea zein eragilerekin jarri diren harremanetan. Horrez gain, Ibilaldia antolatzeak Udalarentzat izango duen kostuari buruz galdetu du.

Ibilaldia guztiona eta irekia izateko ideia horri Zunbeltzek erantzun dio, esanez Juan Delmás eta Ibaizabal ikastetxeetako arduradunekin harremanetan jarri direla, azken batean, helburuak partekatzen dituztelako. Bestalde, gaineratu du euskal kulturako eragile desberdinekin eta Abusuko elkarteekin batzarra egin zutela, jaia zertan datzan azaltzeko. Bukatu du esanez, Ibilaldiaren inguruko unitate didaktikoa ere sortu dutela.

Ibilaldia egiteak eragingo duen gastua dela eta, Garikoitzek argi utzi du Udalak 30.000 euroko dirulaguntza emango dizkiola Abusu Ikastolari, eta gainerakoa beraiek kudeatu beharko dutela. Horrez gain, adierazi du egun hori aurrera eramateko, 1.100 bolondres behar izango direla.

3.- HIZKUNTZA OFIZIALA ERABILTZeko IRIZPIDEAK DOKUMENTUA AURKEZTU.

Alkateak adierazi du Udaleko Gobernu Batzordeak 2022ko otsailaren 16ko bileran onartu zuela hizkuntza ofizialen erabilerarako araudia, eta hiru helburu nagusi dituela:

- 1) Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta berdintasuna lortzea** herritar horiek Bilboko Udaleko sailekin edo Bilboko udal erakundeekin harremanetan jartzen direnean.
- 2) Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea** Bilboko Udaleko sailetan eta udal erakundeetan, euskara ere zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin.
- 3) Bilboko Udalaren eta bere udal-erakundeen jarduera-eremu guztietan hizkuntza ofizialen erabilera arautzea,** hizkuntza-irizpideak udal-funtzionamenduan eta erakundearen kudeaketa-sisteman txertatzeko.

Irizpide horiek Bilboko Udaleko sail guztietan eta Bilboko udal erakundeetan aplikatuko direla erantsi du.

Ondoren, Mari Jose Arrietari eman dio hitza, eta hizkuntza ofiziala erabiltzeko irizpideen dokumentuak dituen atalen berri eman du. Hiru atal ditu dokumentuak:

1.- Irizpide orokorrak

Ahozko komunikazio-harremanak

Idatzizko komunikazio-harremanak

Testu elebidunak edo eleaniztunak idazteko irizpideak

2. Hizkuntza ofizialak itzultzeko irizpideak

3. Jardun-eremuetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

13 jardun-eremu identifikatu dira: Irudi korporatiboa, izendapen ofizialak, hizkuntza-paisaia, sarrera-eta irteera-erregistroa, tresna eta aplikazio informatikoak, ingurune digitala, argitalpenak, iragarkiak, publizitatea eta kanpainak, ekitaldi eta ekintza publikoak, bilerak, langileen etengabeko prestakuntza, dirulaguntzak eta kontratazio administratiboa.

Aurkezpenaren ostean, Labayru Fundazioko Jokin Gorozikak hartu du hitza, lehenik eta behin, egindako lanagatik zoriontzeko. Jarraian, itaundu du ea zer erakunde hartu duten erreferentziatzat irizpideak zehazteko. Mari Josek erantzun dio, esanez batez ere Bizkaiko Foru Aldundiaren eredia hartu dutela kontuan, erakundeen artean antzekotasunak baitaude. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak onartutako irizpideak ere hartu dituzte aintzat. Dena dela, oinarriak oinarri, Bilboko Udalak bere lanketa egin duela argitu du, ondo zaindu dela erakundearen beraren izaera irizpideak zehazteko: barruko jendearekin kontrastea egin da, eta kontraste horren eraginez, aldaketak izan dira irizpideetan.

Ondoren, Ana Viñalsek dokumentuko 2.6. puntuari buruzko galdera egin du: aldibereko interpretazio zerbitzuari buruz. Zerbitzu hori kanpora begirakoa ere izango da? Hau da, streaming bidezko batzarretan ere egongo da? Mari Josek erantzun dio, esanez denborarekin zerbitzu hori ere eman nahi dela, baina horretarako egokitzapen teknikoak egin behar direla.

Jarraian, Iñaki Larrañagak hartu du hitza, eta txostenaren atzean lan mardula dagoela esan du. Era berean, asko gustatu zaio Udal barruan lan-tresna euskara izateko ahalegina egiten dutela entzutea; hau da, garrantzia eman dio Udal barruan ahozko jardunean euskara erabiltzeko ahalegina egiteari, norabide hori hartzeari.

Xabier Arauzok ere Udalak egindako lana goraiatu du, eta txostenaren 2.6. puntuari dagokionez (Aldibereko interpretazio-zerbitzua), Bilboko Udalak arlo hau nola garatzen duen ikusteko interesa agertu du.

4.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN EBALUAZIO-PROPOSAMENA AURKEZTU.

Alkateak Mari Jose Arrietari eman dio hitza Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazio-proposamena zertan den azaldu dezan.

Mari Josek adierazi du Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) indarraldia 2022ko abenduaren 31ra artekoa dela eta amaitzear den planaren balorazioa egiteko momentua iritsi dela. Egungo egoeraren balorazioa egitea ezinbestekoa dela esan du, hurrengo planaren ildo estrategikoak erabakitzeko.

Batzordekideei banaturiko dokumentuan, batetik, gaur egun Bilbon abian diren programen gaineko deskribapen laburra egiten da; eta bestetik, programa horien balorazioa egiteko proposamena dago.

Arrietak azaldu du Bilboko Udalak bat egin zuela Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordearekin batera EAErako diseinatutako planaren helburuekin, eta helburu horiek lortzeko, Bilboko Udalak hainbat programa, kanpaina eta jarduera jarri zituela abian. Txostenaren bigarren puntuari jasota dauden zenbait ekimen aipatu ditu.

Txostenaren azken puntuari dagokionez, zera esan du: Udalak planak abian daraman urteetan etenik bako jarraipena egin duela, eta hainbat datu daudela batuta; bai kuantitatiboak, baita kualitatiboak ere. Beraz, batuta dagoen informaziotik abiatuta, plan osoaren balorazioa egin beharko dela gaineratu du.

Eta Bilbon kokatuko den plana izanik, argi utzi du Bilbori buruzko ezaugarri soziolinguistikoak ere aintzat hartu beharko direla hurrengo plana diseinatzeko.

Aurkezpenaren ostean, Iñaki Larrañaga kezkatuta agertu da pandemiaren ondorioez. Pandemiak txikia handia baino gehiago zigortu duela esan du; pandemiak euskara eta euskal kultura etxeratu egin dituela. Sortzaileak ere zigortu dituela esan du. Bukatzeko, azken orrialdeko esaldi bat ekarri du: *Bilboko Udalaren etorkizuneko erronka nagusietako bat, ziur asko, hizkuntzaren erabilera areagotzeko politikak bultzatzea izango da, esparru ez formaletan bereziki.* Horren harira esan du, estrategia berrietan,

kultur sorkuntza antzokietatik kalera atera beharko litzatekeela; finean, ordua dela pandemiak zigortu duen hizkuntza txikitua kalera ateratzeko.

5.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.

Ez da galderarik ez iradokizunik egon.

Juan Mari Aburto presidenteak une hau aprobetxatu du batzordekideak urte honetan Bilbon egingo diren ekitaldietara gonbidatzeko:

- Loraldia Festibala. Martxoaren 7tik 27ra ospatuko da.
- Korrika. Apirilaren 6an pasatuko da Bilbotik.
- Ibilaldia. Maiatzaren 29an izango da.
- Euskaraldia. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da.

Bukatzeko, presidenteak parte hartu izana eskertu die batzordekideei.

Bilbon, 2022ko martxoaren 2an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA

Mari Jose Arrieta